AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

SEGURTASUN SAILA

123

EBAZPENA, 2013ko abenduaren 18koa, Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearena, J11A2 zenbaki profesionala duen praktiketako agentea Ertzaintzaren Oinarrizko Eskalako Agente modura karrerako funtzionario izendatzeari buruzko 2013ko abenduaren 17ko Ebazpena Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako iragarki-oholean zer egunetan argitaratu den jakinarazten duena.

Ertzaintzaren Oinarrizko Eskalako Agente Kategorian sartzeko hautaketa prozedurarako deia egin zuen Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariaren 2004ko irailaren 15eko Ebazpenaren hemeretzigarren oinarriarekin bat etorriz (irailaren 27ko EHAA, 185. zk.), eta apirilaren 18ko 194/2013 Dekretuaren 9. artikuluak ematen dizkidan eskumenak direla bide, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– J11A2 zenbaki profesionala duen praktiketako agentea Ertzaintzaren Oinarrizko Eskalako Agente modura karrerako funtzionario izendatzeari buruzko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen 2013ko abenduaren 17ko Ebazpena Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako iragarki-oholean 2013ko abenduaren 18an argitaratu dela jakinarazten da.

Bigarrena.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren kontra, gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Segurtasuneko sailburuari, hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik aurrera, hala ezarririk baitago Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 107. eta 114. artikuluetan.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko abenduaren 18a.

Administrazio eta Zerbitzuetako sailburuordea,
JOSEBA IÑAKI GURTUBAI ARTETXE.